

2021

Prestakuntza- Jardueren

PROGRAMA

IRAILA - ABENDUA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak 2021eko datorren lauhilekorako prestakuntza-proposamen hau aurkezten dizue. Online jardueraz gain, aurrez aurreko jarduera batzuk ere egingo dira, gure elkargokideek eskatutako espazioak berreskuratzen joan ahal izateko.

Horrela, lauhileko honetako prestakuntza-eskaintzan ondorengoak izango ditugu: bi ikastaro, tailer bat, partekaturiko espazioen bi saio eta gure lanbiderako oso interesgarriak diren bi libururen aurkezpena.

1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira.

Lauhileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“PERTSONA ARDATZ HARTZEN DUEN ARRETA. GIZARTE LAN GERONTOLOGIKOA”**
15 ordu.
Ikastaro presentziala.
- **“TALDEEKIN MODU PRESENTZIALEAN ETA ONLINE LAN EGITEKO TEKNIKAK, DINAMIKAK ETA ERREMINTAK”**
15 ordu.
Online ikastaroa.

2. TAILERRAK/ PRESTAKUNTZA - PILULAK

Jarduera hauetan, gaia modu labur eta/edo praktikoagoan gauzatzen da. Arratsalde batean egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean aztertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak eman diezazkiguketanak.

Lauhileko honetan, tailer bat planifikatu dugu:

- **“BIKOTEA HAUSTEKO EDO ELKARREKIN BIZITZEARI UZTEKO PROZESUETAN FAMILIA-BITARTEKARITZAN SENTSIBILIZATZEKO TAILERRA”**
4 ordu.
Ikastaro presentziala.

3. ONLINE PARTEKATURIKO GUNEAK

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inpirira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Nafarroa osoko elkargokideek parte hartu ahal izan dezaten, horiek online egitea pentsatu dugu.

Hona hemen lauhileko honetarako proposaturikoak:

- **“KALITATEAREN GARRANTZIA – ETENGABEKO HOBETUNTZA– HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEETAN”**
1,5 ordu.
Online ikastaroa.
- **“KALITATEAREN GARRANTZIA –ETENGABEKO HOBETUNTZA– GIZARTE ZERBITZUETAN” (TOKI ERAKUNDEAK)**
1,5 ordu.
Online ikastaroa.

4. LIBURUEN AURKEZPENA

Lauhileko honetan, lanbiderako oso interesgarriak diren bi liburu aurkeztuko ditugu. Aurkezpena 2020an egin nahi izan genuen, baina pandemiaren ondorioz, atzeratu behar izan genuen.

- **“CONCEPCIÓN ARENAL. REFORMADORA MORAL Y SOCIAL DESDE LA COMPASIÓN”**. FRANCISCO IDARETA GOLDARACENA
Presentziala.
- **“LA NECESARIA MIRADA ÉTICA EN TRABAJO SOCIAL”**. MARIA JESÚS ÚRIZ PEMÁN (KOORD.)
Presentziala.

IKASTAROAK

1

“Pertsona ardatz hartzen duen arreta. Gizarte Lan Gerontologikoa”

JAVIER IRUJO LIZAURO ETA DUNA ULSAMER RIERA

PRESENTZIALA

15 ORDU

TALDE MURRIZTUA
(PLAZA MUGATUAK)

DATAK: URRIA.

Ostirala 1 eta larunbata 2;
Ostirala 15 eta larunbata 16

IZEN-EMATEKO EPEA:

Irailak 24.

ORDUTEGIA: Ostiraletan

16:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan 10:00etatik
13:30era

PREZIOA:

110 € Nafarroako elkargokideentzat (lehentasuna) eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

125 € Gizarte Langintzaren beste elkargo batzuetako elkargokideentzat.

150 € interesatuta dauden beste pertsonentzat.



Prestakuntza-proposamen honetan, pertsona ardatz hartzen duen arreta hausnartzeko, aztertzeko eta identifikatzeko espazioa eskaini nahi da, begirada teorioko-praktikotik, gizarte-lanean aplikatu daitezkeen estrategiak emateko.

+Info
Izen-ematea

IKASTAROAK

2

“Taldeekin modu presentzialean eta online lan egiteko teknikak, dinamikak eta erremintak”

MIRIAM MORENO BELLIDO

ONLINE

15 ORDU

TALDE MURRIZTUA
(PLAZA MUGATUAK)

DATAK:

AZAROA. Asteartea 2 eta astelehena 8, 15, 22 eta 29.

IZEN-EMATEKO EPEA:

Urriak 5.

ORDUTEGIA:

17:00etatik 20:00etara.

PREZIOA:

130 € Nafarroako elkargokideentzat (lehenetasuna) eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

140 € Gizarte Langintzaren beste elkargo batzuetako elkargokideentzat.

150 € Gainerako pertsonentzat.



Taldeekin lan egiteko, saioak bideratzeko eta diseinatzeko ezagutzak eta gaitasunak behar dira. Era berean, beste ezagutza espezifikoko batzuk ere behar dira, banakoekin esku hartzerakoan erabiltzen ez direnak.

Taldeekin lan egiten duzu edo lan egingo duzu eta gaitasun berri batzuk hartu nahi dituzu? Taldearekin esku hartzerakoan energia nola modulatu (igo edo baretu) ikasi nahi duzu? Era askotako saioetarako dinamikak, erremintak eta metodologiak ikasi nahi dituzu; hau da, brainstorming, lankidetzalana, entzute aktiboa,

komunitatea sortzea, talde-identitatea eratzea, talde-kohesioa, parte-hartzea sustatzea, motibatzea, e.a.?

Alderdi horiek eta beste batzuk garatzen ikasiko duzu prestakuntza honetan, talde-lana presentzialki edo online egin behar baduzu ere. Online formatuak bere hizkuntza, bere denborak, bere trikimailuak, e.a. ezagutzea eskatzen du. Ikasi, entrenatu besterik ez duzu egin behar eta, azkenik, HEGAN EGIN!!!

+Info
Izen-ematea

PRESTAKUNTZA- PILULAK

1

“Bikotea hausteko edo elkarrekin bizitzeari uzteko prozesuetan familia-bitartekaritzan sentsibilizatzeko tailerra”

**FAMILIA ELKARTEEN
BATASUNA (UNAF)**

PRESENTZIALA

4 ORDU

DATAK:

URRIAK 6 asteazkena

IZEN-EMATEKO EPEA:

Urriak 1.

ORDUTEGIA:

16.00etatik 20.00etara.

DOAKOA Nafarroako

Gizarte Langintzaren

Elkargoko elkargokideentzat

(lehentasuna) eta Gizarte

Langintzako ikasleentzat.

¿Para qué sirve la MEDIACIÓN
en una separación o un divorcio?

Lo contamos en nuestros TALLERES gratuitos
para familias y profesionales

CON LA MEDIACIÓN FAMILIAR
TODO EL MUNDO GANA



Profesionalentzako tailer honen helburua da familia-bitartekaritza gerturatzea, banantze, dibortziate edo elkarrekin bizitzeari uzteko egoeran aurkitzen diren familiekin esku hartzeko metodo gisa. Horri esker, kasuak koordinatzeko eta desbideratzeko beste zerbitzu batzuk badirela jakin ahal izango dute, arreta integralagoa eskainiz edota etorkizuneko lanbide batera ate bat irekitzeko.

+Info

Izen-ematea

Online PARTEKATURIKO GUNEAK/WEBINARRAK

1

“Kalitatearen garrantzia hirugarren sektoreko erakundeetan”

JOSEAN VILLANUEVA OYARZABAL

ESKLEROSI ANIZKOITZA NAFARROA. NAVARRA 500+ BIKAINTRASUN-SARIA EFQM 2020 EREDUA.

ONLINE

1,5 ORDU

DATA:

URRIAK 20 asteazkena

IZEN-EMATEKO EPEA:

Urriak 17.

ORDUTEGIA:

17.00etatik 18.30etara.

DOAKOA Nafarroako

Gizarte Langintzaren

Elkargoko elkargokideentzat

eta Gizarte Langintzako

ikasleentzat.



Saio honen bitartez, esku-hartze sozialari dagokionean, kalitateari, etengabeko hobekuntzari eta bikaintasuna bilatzeari buruzko gogoeta egin nahi dugu. Gure ustez, oso garrantzitsua da arlo sozialean lan egiten duten erakundeak erreferenteak izatea eguneroko lanean etengabeko hobekuntza bilatzerakoan; modu horretan, beste lankideen inspirazio ere izateko bikaintasuna bilatzerakoan.

Besteak beste, hirugarren sektoreko erakundeetako bat izango dugu, “Nafarroako Bikaintasunaren 2020 Saria”

modalitate batean saritua. Esperientzia partekatzeaz gain, gai horri buruzko hausnarketa eskainiko digu.

+Info

Izen-ematea

Online PARTEKATURIKO GUNEAK/WEBINARRAK

2

“Kalitatearen garrantzia Gizarte Zerbitzuetan”

**ELENA ZARRULEQUI
MINCHINELA**

SSB NOAIN.
BIKAINTRASUNERAKO
KONPROMISOAREN SARIA-
EFQM 2020 EREDUA.



ONLINE

1,5 ORDU

DATA:

AZAROAK 10 asteazkena

IZEN-EMATEKO EPEA:

Azaroak 7.

ORDUTEGIA:

17:00etatik 18:30etara.

DOAKOA Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

Saio honen bitartez, esku-hartze sozialari dagokionean, kalitateari, etengabeko hobekuntzari eta bikaintasuna bilatzeari buruzko gogoeta egin nahi dugu. Gure ustez, oso garrantzitsua da arlo sozialean lan egiten duten erakundeak erreferenteak izatea eguneroko lanean etengabeko hobekuntza bilatzerakoan; modu horretan, beste lankideen inspirazio ere izateko bikaintasuna bilatzerakoan.

Saio honetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu batek parte hartuko du (Toki-erakundea), “Bikaintasunaren Nafarroako

2020ko Sariaren” modalitateetako batean sarituak, eta, esperientzia partekatzeaz gain, gai horri buruzko gogoeta eskainiko du.

+Info
Izen ematea

LIBURUEN

AURKEZPENA

Lauhileko honetan, lanbiderako oso interesgarriak diren bi liburu aurkeztuko ditugu; aurkezpena 2020an egin nahi izan genuen, baina pandemiaren ondorioz atzeratu behar izan genuen. Gainera, bi liburuen aurkezpena eta gero, **ale bat zozketatuko dugu** aurkezpenera hurbildutako pertsonen artean. Aurkezpena hauek presentzialak izango dira, egoerak hala uzten bagaitu.



“CONCEPCIÓN ARENAL. REFORMADORA MORAL Y SOCIAL DESDE LA COMPASIÓN”

FRANCISCO IDARETA
GOLDARACENA

PRESENTZIALA

TOKIA: CIVICAN Iruñea.

DATA:

IRAILAK 16 osteguna.

IZEN-EMATEKO EPEA:

IRAILAK 12

ORDUTEGIA: 18:00etan.

DOAKOA Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat..

Lan hau Gizarte Langintzaren Kontseilu Nagusiak eta Paraninfo Argitaletxeek elkarrekin argitaratutako bildumaren barruan kokatzen da. Bilduman, unibertsitateko testuak eta saiakerak biltzen dira, baita gizarte-laneko klasikoak ere, estatukoak zein atzerrikoak, arreta handiz hautatuak, hispaniar hizkuntzako irakurleen artean (irakasleak, ikasleak edo jarduneko profesionalak), diziplina horren eta haren klasikoen jatorria eta historia aurkitu eta sustatzeko.

Obra honetan azaltzen denez, Concepción Arenal Espainiako Gizarte Langintzaren historiako lehen gizarte-langilea izan zen. Bisitari sozial gisako aztarnak Espainiako gizarte-langileen lehen promozioetan aurkitu genituen; oinarritzko baliabide tekniko eta metodologikorik ez zuten, orientazio tekniko eta erreformista handia izan zuten. Hasiera batean, San Vicente de Paulen esku-hartze sozialerako proposamenetan inspiratu zen Arenal, baina haratago joateko gai izan zen, neurri batean, “adimen eta bihotzeko” lagunen estatuko eta nazioarteko sare bati esker. Sare horrek “gizatasun-sentimendu” unibertsalarekin sintonizatzen

aukera eskaini zion, hainbat kezka sortuz. Arenalen aztarna horiek aurkitzen ditugu Espainiako gizarte-langileen lehen promozioetako hezitzaileengan.

Concepción Arenal Mary Ellen Richmond eta Jane Addams bezalako pertsonaien mailan dago, haren garaikideek (Karitateko Gizarte Erakundeak) baino ekarpen askoz aurreratuagoa egin izanagatik, baita Gizarte Langintzaren sortzaileek baino ere, haiek baino ia mende erdi lehenago. Addams-enganana Richmond-enganana baino gehiago hurbiltzen den jarrera batetik, Arenalek kosmoikuspegi liberal erreformista-organizista bat defendatu zuen, eta bertan kokatzen zuen errukiaren etika berezia, esku-hartze sozialaren funtsezko zutabe gisa, aurrerapen zientifikoaren (entsegua eta errorearen ezabapena) eta herritar bakoitzaren hobekuntza moralaren ideiak egituratutako erreforma soziala planteatuta. Hori guztia dela-eta, Arenal mundu mailako Gizarte Langintzaren Olinpoan sartu behar dela uste dugu, eskubide osoko kide gisa.

Izen-ematea

LIBURUAK



“LA NECESARIA MIRADA ÉTICA EN TRABAJO SOCIAL”

MARÍA JESÚS ÚRIZ PEMÁN
(KOORD.)

PRESENTZIALA

TOKIA: CIVICAN Iruñea.

DATA:
AZAROAK 18 osteguna.

IZEN-EMATEKO EPEA:
AZAROAK 15

ORDUTEGIA: 18:00etan.

DOAKOA Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

Lan hau Gizarte Langintzaren Kontseilu Nagusiak eta Parainfo Argitaletxeek elkarrekin argitaratutako bildumaren barruan kokatzen da. Bilduman, unibertsitateko testuak eta saiakerak biltzen dira, baita gizarte-laneko klasikoak ere, estatukoak zein atzerrikoak, arreta handiz hautatuak, hispaniar hizkuntzako irakurleen artean (irakasleak, ikasleak edo jarduneko profesionalak), diziplina horren eta haren klasikoen jatorria eta historia aurkitu eta sustatzeko

Etika funtsezko elementua da lanbide guztietan, eta, are gehiago, zeregin profesionalaren ardatza pertsona den lanbideetan. Hain zuzen ere, hori da gizarte-lanaren kasua; izan ere, lanbide horrek askotan babesgabetasun- edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsona eta kolektiboekin lan egiten du. Beraz, beharrezkoa da “begirada etikoa” eskuratzea, gai etiko horiei aurre egin eta erabiltzaileen begietara begiratu ahal izateko partekatutako balio eta printzipio etiko profesionalen. Horixe da liburuaren helburua, gizarte-lanaren etikaren arloan ospe handia duten irakasleen ekarpen baliotsuen emaitza, bai nazioan, bai nazioartean.

Obra honek erreferente izan nahi du, gizarte-laneko ikasle zein irakasleentzat, nahiz esku-hartze sozialeko profesionalentzat, egunero aurkitzen baitira dilema eta gai etikoekin. Beraz, esparru akademikora ez ezik, profesionalera ere zuzentzen da, arazo etikoak jorratzeko gida eta orientabide izan dadin.

Izen-ematea



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Manuel de Falla, 12 • Entpta. Of. 2 / 31005 Pamplona • Iruñea Nafarroa / Tlf.: 948 240 401